

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Diputatu Nagusiaren 480/2020 Foru Dekretua, abenduaren 30ekoa. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko Arabako udalek eta kuadrillek sustatutako programak edo jarduerak garatzeko dirulaguntza deialdia ebaztea. 2021eko ekitaldia**

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, ezarritako printzipioak oinarri hartuz, foru erakundeei dagokie, besteak beste, "Sustapen neurriak ezartzea, udalek eta gainerako toki entitateek bitarteko materialak, ekonomikoak eta giza baliabideenak izan ditzaten, emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko diseinatutako programak eta jarduerak garatu ahal izateko"; "Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek lurralde eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute" eta "Bakoitzaren lurralde eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea".

Gainera, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komun en eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoak, azken horiei ematen die berdintasun arloa burutzeko eskumena, 7 c) artikulua indarrez.

Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planak modu koordinatuan, integralean eta sistematikoan jasotzen ditu gure gizartean dauden desberdintasunei heltzeko eta emakumeen eta gizonen erabateko berdintasunerako bidean aurrera egiteko jarduerak, estrategiak eta tresnak. Plan hori aurten amaituko den indarraldiarekin diseinatu zen. 2021ean zehar, planaren ebaluazioa eta V. Foru Plana egingo dira.

Hala, plan baten eta bestearen arteko denbora tartean, berdintasuna lortzeko eragin handiena duten jarduerak eta programak lehenetsiko dira, eta honako hauek nabarmenduko dira: LAIA, Arabako Emakumeen Jabekuntza Eskola, indarkeria matxistei buruzko prebentzio eta sentsibilizazio programaren esparruko jarduerak, Arabako Foru Aldundian Berdintasunerako I. Barne Plana garatzea eta ezartzea, sailekin koordinatzea genero ikuspegia txertatzeko programa sektorialetan eta berdintasun egituren iraunkortasuna kuadrilletan. Hori guztia kulturartekotasunaren eta lankidetzaren arloekin koordinatuta, politiken zeharkakotasunean beste urrats bat emateko.

Gainera, nabarmentzekoa da COVID-19ak sortutako pandemiak markatutako testuinguru batean gaudela. Pandemia osasun larrialdi batetik harago doa. Krisi ekonomikoa, humanitarioa, segurtasuneko eta giza eskubideena ere bada. Munduak dimentsio handiko krisi globalari egin behar dio aurre. Krisi horrek mundu osoan ondorio sozial, ekonomiko eta politiko larriak izango ditu, eta gogorrago kolpatuko ditu zaurgarritasun, pobrezia edo gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsonak. Ildo horretan, krisiak bereziki emakumeei eragiten die: zaintza lan gehiago beren gain hartu behar izateak laneko prekarietate eta pobrezia handiagoak eta indarkeria arriskuaren gehikuntzak desberdintasun egoerak areagotzen lagundu dute. Egoera horrek, zalantzarik gabe, 2021eko proiektuak eta jarduerak markatuko ditu, deialdi honen xedeari eragin baitio eta eragiten baitio.

Giza Eskubideen Zuzendaritzak 2020ko abenduaren 21an egindako proposamena ikusi da.

Horiengatik, diputatu nagusi bezala dagozkidan ahalmenez baliatuz,

## XEDATZEN DUT

Lehena. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko Arabako udalek eta kuadrillek sustatutako programak edo jarduerak garatzeko 2021eko ekitaldiko dirulaguntza deialdia onartzea. Eranskinaren kopia erantsi da.

Bigarrena. Deialdi hori arautzeko, kontuan hartzen dira Diputatu Nagusiaren Sailaren lehia araubideko dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak (23/2020 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena, ALHAOn argitaratua, 84. zk., 2020ko uztailaren 27koa), bai eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 9ko 11/2016 Foru Arauaren eranskinak eta dekretu honen eranskinak xedatutakoa ere.

Hirugarrena. Foru dekretu honetan araututako dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2021erako aurrekontu proiektuaren 02.5.01 92.00 4.6.2.90.01 aurrekontu partidatik (140.000,00 euroko kreditua izatea kalkulatzen da) ordainduko dira. Beraz, dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ebazten den unean.

Udalek eta kuadrillek sustatutako emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko programa eta jarduerak garatzeko 2021eko dirulaguntzen deialdiari esleitutako zenbatekoaren, gehienez, ehuneko 10ean handitu ahal izango da zenbateko hori, 2021eko ekitaldian.

Laugarrena. Organo eskumendunak eman beharreko ebazpena emango du, organo instruktoareak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik hartzen ez bada, interesa duten erakundeek ezetsizat jo ahal izango dute eskaera.

Bosgarrena. Berdintasun eta Giza Eskubideen zuzendariari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu, interpretatu eta betearazteko behar diren egintza eta xedapen guztiak eman ditzan.

Seigarrena. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan xedatzen duen moduan.

Zazpigarrena. Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratzea. Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Zortzigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioke diputatu nagusiari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioke bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 30a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria*

**AINHOA CAMPO ARENAZA**

**ERANSKINA****ARABAKO KOADRILEK ETA UDALEK ETA TREBIÑUKO ENKLABEAK SUSTATUTAKO  
EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA LORTZEKO PROGRAMAK ETA/EDO  
JARDUERAK GARATZEKO DIRULAGUTZEN DEIALDIA, 2021EKO EKITALDIA****1. artikulua. Xedea eta helburua**

Deialdiaren xedea da dirulaguntzak ematea, norgehiagoka araubidean, udaletan eta kuadrillan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko programak eta jarduerak egin daitezzen 2021eko ekitaldirako, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean.

**2. artikulua. Aurrekontu egozpena, dirulagutzen zenbatekoa eta muga**

Gastu hori babesten duen aurrekontu partida honakoa da: 02.5.01 92.00.4.6.2.90.01 "Berdintasunerako ekintza publikoak sustatzea"; Arabako Foru Aldundiaren 2021. ekitaldirako aurrekontu proiektuarena. Aurreikuspenen arabera, 140.000,00 euroko kreditua izango du, eta, beraz, dirulaguntza emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da dirulaguntza ebazteko unean.

Deialdi honen esparruan, diruz lagun daitekeen aurrekontu osotzat jotzen da deialdi honen arabera diruz lagun ezin daitezkeen gastuak proiektuaren aurrekontu osotik kenduta ateratzen den zenbatekoa.

Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak diruz lagundu daitekeen aurrekontu osoaren ehuneko 90 finantzatuko du gehienez, eta erakunde eskatzaileari dagokio gainerako ehuneko 10a erabilgarri dagoela ziurtatzea.

Erakunde eskatzaileak ekarpen ekonomikoen bidez egin ahal izango du bere ekarpena.

Emandako dirulaguntzak ezingo du inola ere gainditu eskatutako zenbatekoa, ez eta proiektuaren aurrekontuaren ehuneko 90 ere. Erakunde eskatzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahal du.

Gehieneko zenbatekoak erakundearen biztanle kopuruarekiko proportzionalak izango dira, tarte hauei jarraituz:

- 500 biztanletik beherako erakundeak: 3.000 euro.
- 501-1.000 biztanleko toki erakundeak: 5.000 euro.
- 1.001-3.000 biztanleko erakundeak: 6.000 euro.
- 3.001 biztanletik gorako erakundeak: 8.000 euro.

Kuadrilletarako, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 10.000,00 euro izango da.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko, deialdi honetan ezarritakoaren arabera berraztertuta, entitateko 800,00 euroko dirulaguntzara heltzen ez diren eskaerak.

Diruz lagun daitekeen aurrekontua doitzeko, hala badagokio, proiektuaren kostua beste dirulaguntza eta/edo baliabide publiko edo pribatu batzuetako funtsekin batera finantzatzeko eskatu duen erakundeak ebazpen horren berri eman beharko dio Berdintasunerako eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari, eta jakinarazpen horrekin batera, dirulaguntza eman edo ukatu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

Deialdiak onartu ahal izango du Arabako Foru Aldunditik bertatik edo estatuko nahiz nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik beste dirulaguntza edo diru sarrera batzuk jasotzea, baldin eta dirulaguntza horien zenbatekoa, bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, diruz lagun daitekeen guztizko aurrekontua baino handiagoa ez bada.

**3. artikulua. Erakunde onuradunak eta baztertuak**

1. Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak eta udalak, eta Trebiñuko enklabeko udalak, Vitoria-Gasteizko Udala eta hura partaide den kuadrilla izan ezik, deialdi honen xedearekin bat datozen jarduerak egiten badituzte.

2. Diputatu Nagusiaren Sailaren konkurrentzia araubideko dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorretako 3. artikuluan baztertutakoak, Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuaren bidez onartuak.

**4. artikulua. Diruz lagun daitezkeen proiektuak eta gastuak**

Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 22ko 30/2012 Foru Dekretuaren arabera, Eusko Legebiltzarrak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3 eta 3.4 artikuluen arabera, erakunde onuradunek genero ikuspegia txertatu beharko dute diruz lagundu daitezkeen proiektuan.

A) Dirulaguntza jaso ahal izango dute Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planaren eta EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren helburu hauen barruko jarduera eta/edo programek:

1. Berdintasunaren hainbat arlotan estatistikak eta azterlanak bultzatzea eta egokitzea.

2. Emakumeen autonomia eta ahalduntzea garatzearen eta generoaz jabetzearen alde egitea eta balioen aldaketa sustatzea, rol eta estereotipo sexistak eta aniztasunari eta generoaren nortasunei buruzko aurreiritziak kenduta. Emakumeek esparru eta espazio guztietan gizartean parte har dezaten sustatzea.

3. Zaintzak bizitzaren jasangarritasunerako ezinbesteko baldintzat hartzea gizartean. Ordaindu gabeko zainketa lanak ikusaraztea eta balioa ematea. Zaintzen gizarte antolaketa berri bat bultzatzea, zaintzak birbanatzeko.

4. Indarkeriarik gabeko jokabide ereduaren garapena sustatzea, hain agerikoak ez diren beste indarkeria mota batzuk (indarkeria mediatikoa, sinbolikoa, etab.) lantzea, eta indarrezko jokareen prebentzioa eta detekzio goiztiarra, sentsibilizazioa eta informazioa areagotzea, bereziki gazteen artean.

Jende guztiak parte hartzekoak diren jarduera diruz lagunduak LAIA Eskola - Arabako Emakumeen Berdintasunerako eta Jabekuntzarako Eskolaren programazioaren parte izango dira.

B) Diruz lagundu ezin diren programak:

Ez dira diruz lagunduko:

1. Diputatu nagusiaren sailaren lehia araubideko dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorren 1. artikuluen arabera, proiektuaren justifikazioan, helburuetan eta ekintzetan genero ikuspegia txertatzen ez duten proiektuak (II. eranskineko 1., 2.1 eta 2.2 puntuak), eta proiektua erakundearen berdintasun programaren testuinguruan kokatzen ez dutenak.

2. Aurrekontuan inprimakiko (II. eranskina) 3. atala ondo xehatuta aurkeztu ez edota irizpide honetan punturik lortu ez duten proiektuak.

3. Zerbitzuak sortzearekin eta/edo mantentzearekin lotutako jarduerak.

C) Diruz lagun daitezkeen gastuak:

1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira inolako zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozen, behar-beharrezkoak diren eta 2021eko urtarrilaren 1etik 2021ko abenduaren 1era arte egiten direnak.

2. Dirulaguntza lortzeko eta justifikatzeko, honako hauek lagunduko dira diruz:

a) Material suntsikorraren gastuak.

**b) Bidaia eta egonaldi gastuak:**

Joan-etorrietako gastuen kasuan, ahal den neurrian garraio publikoa erabiliko da. Garraio pribatua erabili behar izanez gero, gehieneko muga 0,29 eurokoa izango da kilometro bakoitzeko.

**c) Kontratazio gastuak (langile profesionalak eta beste batzuk –enpresak, elkarteak–):**

– Enpresak, elkarteak edo profesionalak kontratatuz gero, azalpen memoria aurkeztu beharko dute, eta han adierazi berdintasunaren inguruan zer lan egin duten, zer enpresa edo erakunderekin lan egin duten eta hura zein alditan egin den.

Lantegiak eta ikastaroak egiteko kontratazioen gastuetan, bai eta bakarrizketa, mintegi, hitzaldi edota antzeko beste ekimen batzuk egiteko kontratazioen gastuetan ere, dirulaguntzarako gehienez 120,00 euro onartuko dira orduko (zergak eta gizarte segurantzaren barne). Gehieneko zenbateko horretan sartuko da jardueren kudeaketa, koordinazioa, prestalanak, gauzatzea, joan-etorriak eta ebaluazioa egiteko behar den denbora. Jarduera hori ezingo da 16 orduetik gorakoa izan.

Ikastaroak, tailerrak edo antzekoak emateko arduraren emateko langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan gutxienez 50 orduko prestakuntza edo urtebeteko esperientzia profesionala egiaztatu beharko dute. Prestakuntza hori egiaztatu ezean, erakundeak kontratazio horren beharra justifikatu beharko du, baldintza horiek betetzen dituen beste profesionalik ez dagoelako.

Tailer edo ikastaro bera eta abar bat behin baino gehiagotan errepikatzen bada proiektua gauzatzeko aldiaren ordu bakoitzeko diruz lagun daitezkeen gehieneko muga ehuneko 25 murriztuko da, lehenengoan jada aplikatu denari dagokionez.

Organo kudeatzaileak aurreko kasuan deskribatutako diruz laguntzeko moduko mugak betetzen direla egiaztatu ahal izateko, erakunde eskatzaileak aurkeztutako proiektuaren aurrekontuan banakatu eta zehaztu beharko du jardueraren iraupen ordu kopurua, bai eta dagokion orduko zenbatekoa ere (zergak barne).

Era berean, antzerki eta musika emanaldiei, klown saioei eta ipuin kontalariei eta antzeko beste ekintza batzuei dagokienez, kontratazioak gehienez 900,00 euroko dirulaguntza jaso ahal izango du (zergak barne). Erakunde eskatzaileak, gehienez ere, horrelako ekintza bat sartu ahal izango du eskabidean.

**d) Publizitate gastuak.**

e) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilerari buruz ezarritakoa betetzeak entitate onuradunei eragiten dizkien gastuak.

f) Martxoaren 8rako, eskualde topaketetarako eta bestelako ekitaldietarako (txapak, poltsak, eranskailuak, etab.) materialerako gastuen kasuan, gehienez ere 400,00 euro lagunduko dira diruz.

Salbuespen gisa, puntu honetan deskribatzen diren eta diruz lagundu daitezkeen mugak izaera, metodologia, berrikuntza eta/edo espezializazio bereziko jardueretan gainditu ahal izango dira. Salbuespen hori kontuan hartzeko eta, hala badagokio, Balorazio Batzordeak onartzeko, erakunde eskatzaileak II. eranskinean justifikatu beharko du –proiektuaren inprimakia–.

**3. Honako hauek ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko:**

- soldatapeko langileen gastuak;
- gastu orokorrak edo zeharkakoak;
- material suntsiezina erostea;
- liburuak, aldizkariak edo bestelako argitalpenak;

- otorduak, opariak edo antzeko beste zeregin batzuk;
- argitalpenak editatzeko gastuak (paperean, CDan, webgunean, etab.);
- aktibo finkoko inbertsioak.

4. Proiektu beraren barruan Berdintasunerako eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren iritziz deialdi honen xederako behar beste laguntzen ez duten jarduerak badaude, baztertu egin ahal izango dira esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko.

5. Diruz lagun daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100era arte azpikontratatzeko baimena eman ahal izango da, betiere Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak bere 27. artikuluan ezarritako baldintzak betez.

#### **5. artikulua. Eskabideak aurkeztea**

1. Eskabideak aurkezteko epea, deialdi honen seigarren artikuluan aipatzen diren agiriekin batera, hogeii egun baliodunekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Agiriak bide telematikoz aurkeztu beharko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan, hartarako egokitutako prozedura elektronikoari jarraituz, eta haren barruan dauden eskabide ereduak betez. Horien edukia deialdi honi erantsita doa, onesteko.

3. Izapideak nahitaez online egin behar dituzten pertsonak bertaratuz egiten badute, online egitea eskatuko zaie. Ondorio horietarako, zuzenketa hori egin den eguna joko da eskaeraren aurkezpen datatzat.

4. Eskabide horietan, zehazki I. eranskinean, bertan jasotako informazioaren eta dokumentazioaren benetakotasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat erantsiko da.

5. Udalek, banaka edo taldeka, edo kuadrillek berek egin ahal izango dituzte eskabideak.

Eskabidea hainbat udaletan taldekatuta aurkezten bada, elkarteko kide bakoitzak bere gain hartutako exekuzio konpromisoak zehaztu beharko dira, bai eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta erakunde guztiak izango dira onuradun. Era berean, pertsona edo erakunde bat izendatu beharko da elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar gisa, onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiarekin, eta harekin ezagutuko dira eskaera izapidetzetik eratorritako gainerako jarduketak.

Era berean, eskabidearekin batera, proiektuan parte hartzen duen udal bakoitzeko osoko bilkuraren udal erabakia aurkeztu beharko da. Erabaki hau udal batek baino gehiagok elkarrekin aurkeztutako proiektuei eta koadrilek aurkeztutakoei aplikatuko zaie.

#### **6. artikulua. Agiriak**

Eskabideekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Eskaera orria, I. eranskinaren arabera.
- b) Proiektuaren inprimakia, II. eranskinaren arabera.
- c) Baldin eta beste dirulaguntza publiko eta/edo pribaturen bat eskatu bada, haien egiaztagiriak aurkeztu behar dira, eta zenbat diru eskatu den adierazi.
- d) Erakundearen organo eskudunaren erabakiaren ziurtagiria, erakundeko idazkariak egina, gastu eskaera eta finantzaketa baimentzen duena, eskaerak aurkezteko epea bukatu aurretik.

Hainbat udalek batera aurkeztutako edo kuadrillek aurkeztutako eskaerei dagokienez, proiektuan parte hartu duten udal guzti-guztiek erantsi behar dute ziurtagiri hori.

Era berean, udalen elkarte batek aurkeztutako eskaeren kasuan, elkartearen ordezkari gisa jarduten duen pertsonari edo erakundeari emandako ahalordea egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

e) Erakunde eskatzailea udala bada, 2021eko urtarrilaren 1ean udalerrian edo udalerrietan erroldatutako pertsonen kopuruaren ziurtagiria, erakundeko idazkariak emana, sexuaren arabera bereizita.

f) Egoki bada, kontratazio gastuen aurreikuspenaren azalpen idazkia (II. eranskinean dagoen ereduan).

g) Enpresak, elkarteak edo profesionalak kontratatuz gero, azalpen memoria aurkeztu beharko dute, eta han adierazi berdintasunaren inguruan zein lan egin duten, zein enpresa edo erakunderekin lan egin duten eta hura zein alditan egin den.

h) Egoki bada, ikastaroak, lantegiak edo antzekoak emateko ardura duten langileen kasuan, jardueran parte hartzen duten pertsonak gutxienez 50 orduko prestakuntza eta/edo berdintasunaren arloan urtebeteko esperientzia dutela egiaztatu behar da.

i) Egoki bada, joan-etorrien gastuen aurreikuspenaren azalpen idazkia (II. eranskinean dagoen ereduan).

Aurkeztutako eskaera egoki baloratu eta ebazteko, Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak agiri eta informazio gehiago eska diezaike erakunde eskatzaileei.

Eskabidearekin batera nahiz frogagiritan bide elektronikoz ematen diren kopiek balioa izango dute dirulaguntzak emateko administrazio prozedura izapidetzeko bakarrik. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 28.7. artikuluan ezarritakoaren arabera, onuraduna da aurkeztutako agirien egiazkotasunaren erantzulea. Hala ere, Administrazioak beharrezkoak diren jarduketa guztiak egin ahal izango ditu egiaztatutako egitateak eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeke, eta interesdunek Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko dituzte horretarako eskatzen zaizkien agiri guztiak.

Eskabidean edo horrekin batera aurkezten diren agirietan akatsik izanez gero edo osorik bete gabe egonez gero, hamar egun balioduneko epea emango zaie interesdunei antzemandako akatsak konpontzeko. Epe hori igaro eta akatsak konpondu ezik, eskatzaileak eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da; horretarako, ebazpena emango da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik.

## **7. artikulua. Izapidetzea eta balorazio batzordea**

Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuak izango du prozedura bideratzeko eskumena.

Eskabideak Balorazio Batzorde batek aztertuko ditu. Batzordeburua Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria izango da, edo hark eskuordetutako pertsona. Batzorde horretako kide izango dira Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuko burua eta Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari atxikitako bi berdintasun teknikari. Idazkari lanak Idazkaritza Teknikoaren eta Herritarren Arretaren buruak egingo ditu, edo azken horrek eskuordetutako pertsonak, hitza bai baina botorik ez dutela.

## **8. artikulua. Deialdia ebaztea**

1. Organo eskumendunak eman beharreko ebazpena emango du, organo instruktoreak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehieneko epea igaro eta ebazpen espresurik eman ez bada, erakunde interesdunak ulertu ahal izango du eskaera ezetsi egin dela.



2. Dirulaguntza emateko ebazpenak, oinarri arautzaileak eta deialdiaren baldintzak betetzen direla arrazoitzeko, honako hauek adierazi beharko ditu:

a) Dirulaguntza jasotzen duen erakundea edo erakunde onuradunen zerrenda, banakako zenbatekoekin, bai eta ezestea eta ez ematea ere, kontuan hartu gabeko eskabideetan atzera egiteagatik, eskubideari uko egiteagatik edo gerora gertatutako ezintasun materialagatik.

b) Lagundutako proiektuaren izena eta diruz lagun daitekeen aurrekontua.

3. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan xedatzen duen moduan.

Denek jakin dezaten, emandako dirulaguntzak ALHAOn, Arabako Foru Aldundiaren garden-tasun atarian eta Arabako Foru Aldundiaren webgunean argitaratuko dira (<https://web.araba.eus/eu/berdintasun-lankidetza-eta-kulturartekotasuna>).

4. . Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, bere 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertzeo errekurtsioa jar dakioko diputatu nagusiari, hilabete epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabete epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak bere 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

### 9. artikulua. Balorazio irizpideak eta haien haztapena

Irizpide hauek aplikatuko dira:

	GEHIENEO PUNTUAZIOA
1. Proiektuaren justifikazioa Testuinguruaren azalpen argi eta laburra: emakumeen eta gizonen egoera guztien analisi bereizita eta proiektuaren eremuan hark emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko egindako ekarpena. Proiektuaren kontestualizazioa entitatearen berdintasun programan.	6
2. Proiektuaren kalitate teknika	15
2.1. Proiektuaren justifikazioaren, duen helburuaren, metodologiaren, planifikatutako jardueren eta jarraipenaren eta ebaluazioaren arteko lotura. Proiektuaren koherentzia orokorra	6
2.2. Jardueren zehaztasun, argitasun, xehetasun eta plangintza maila	6
2.3. Proiektuaren berrikuntza maila. Metodologiari, baliabide edo materialei, ekintzei, hedapenari edo berrizaitzat jo daitekeen beste edozeini lotutako elementu berritzaileak izatea	3
3. Proiektuaren aurrekontua Aurrekontua proiektuari egokituta egotea	4
4. Proiektuaren eragina	9
4.1 Proiektuak esku hartzeko prozesu bat finkatzea edo diseinatzea barne hartzen badu, eta prozesu horren egiturak jarduketa prozesu estrategiko bat islatzen badu.	4
4.2. Proiektua zenbait udalek batera edo kuadrilla batek sustatu duten -azken kasuan, jarduerak udal batean baino gehiagotan egin beharko da	5
5. Euskararen erabilera proiektua garatzeko orduan	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>36</b>

Proiektu bat diruz lagundua izan dadin, orotara eman daitekeen puntuazio osoaren ehuneko 50eko puntuazioa lortu beharko du gutxienez.

Irizpide bakoitzean lortutako puntu baturak puntu kopuru osoa emango du, eta dirulaguntza emateko, aurkeztutako eta onartutako eskabideak alderatuko dira, eskabideen arteko hurrenkera ezartzeko, eta puntuazio handienetik txikienerako hurrenkeran esleituko da zainpe-tutako aurrekontu kreditua agortu arte.



Puntuazio portzentajearen azken tartean sartzen diren eta aurrekontu erabilgarria agortzen duten eskabideei dagozkien dirulaguntzen zenbatekoak kalkulatzeko, gerakin erabilgarria hainbanatuko da, diruz lagun daitekeen proiektu edo jarduera bakoitzean diruz lagun daitekeen aurrekontuaren arabera.

Dirulaguntzaren xedea erakunde eskatzaileak egin beharreko jarduerak finantzatzea deanean, ebazpen proposameneko dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskabidean ageri den zenbatekoa baino txikiagoa bada, Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuak erakunde onuradunari bere eskabidea birformulatzeko eskatu ahal izango dio, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzari egokitzeko.

#### **10. artikulua. Gastuak justifikatzea. Epea eta erakunde onuradunek aurkeztu beharreko agiriak**

1. Proiektuko gastuen azken justifikazioa (hau da, diruz lagundu daitekeen aurrekontu guztiarena) aurkezteko, 2021eko abenduaren 15era arteko epea egongo da.

Salbuespenez, bigarren ordainketari dagokionez, eta aurkezturiko amaierako justifikazioan ez bada egiaztatu egindako gastuen ordainketa dirulaguntzaren ehuneko 20koa edo gutxiagokoa izan dela, justifikatu beharreko aurrerakin gisa egingo da ordainketa, eta ordainketa haien egiaztatagiriak dirulaguntza jaso eta hilabeteko epean aurkeztu beharko dira.

2. Dirulaguntzen erakunde onuradunek aurkeztu beharreko dokumentazioa Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuaren bidez onartutako diputatu nagusiaren lehia araubideko dirulaguntzak emateko oinarri orokorren 14. artikuluan adierazitakoa izango da.

Aurrekoaz gain, eta proiektua beste funts publiko edo pribatu batzuen bidez batera finantzatuz gero, funts horiek eman edo ukatu direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da (laguntzak, dirulaguntzak...).

Halaber, diruz lagundutako jarduera justifikatzeko beste agiri erantsi batzuk aurkeztu ahal izango dira (txosten eta memoria zabalduak, argitalpenak, publizitatea, argazkiak eta abar).

III. eranskinean, proiektua justifikatzeari buruzkoan, erantzukizunpeko adierazpen bat jasoko da, bertan jasotako informazioaren eta dokumentazioaren egiazkotasunari buruzkoa.

Dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Jarduketa memoria bat, diruz lagundutako proiektuaren betetze maila justifikatzeko, eta nahitaez bete beharko da, atal guztietan, justifikazio inprimakia, erantsitako III. eranskinaren arabera.

2. Proiektuaren gastuak eta sarrerak justifikatzeko memoria ekonomikoa, atal guztietan nahitaez bete beharko dena justifikazio inprimakia, erantsitako III. eranskinaren arabera.

Memoria horrekin batera, fakturak eta froga balio baliokidea duten gainerako agiriak aurkeztuko dira, bai eta ordainagiriak ere.

Diruz lagun daitekeen aurrekontuan profesionalen gastuak sartzen badira, gastuen egiaztatagiri gisa aurkeztutako fakturretan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura atxikitako zenbatekoak sartu direla justifikatu beharko da.

Justifikazio hori berariaz egingo da, erakunde onuradunak atxikipen horiek sartuta daudela adierazten duen adierazpena sinatuz, eta, horrekin batera, Arabako Foru Aldundiari baimena emanegokitzat jotzen dituen egiaztapenak egiteko, Foru Ogasunean III. eranskinean jasotako datuak baliatuz.

Ez dira onartuko honako datuak argi eta garbi azaltzen ez dituzten fakturak, ez antzeko agiriak;

- Pertsona edo entitate jaulkitzailea, haien izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Pertsona edo entitate hartzailea, haien izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.

- Gastuaren xedea.
- Data.
- Faktura zenbakia.

Dirulaguntzak justifikatzeko, faktura elektronikoen erabilera onartuko da, betiere fakturazio betebeharren esparruan araudian ezarritako baldintzak betetzen badira (maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretua, fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen arautegia edo aplikatzekoa den arautegia onartzen dituen).

Fakturak ordaindu direla egiaztatzeko agiriei dagokienez, ordainketaren frogagiri hauek onartuko dira:

- Bankuko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren ente onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua daukala.
- Fakturaren jaulkitzaileak izenpetutako edota zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.
- Bankuko jatorrizko kontu laburpenak, posta arruntez jasoak.
- Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak azaltzen dituen.
- Bankuak posta elektronikoz bidalitako laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.
- Jatorrizko erosketa tiketak, baldin eta horiek erabiltzean zenbatekoa ordaindu bada (merkataritzea gunea, autobidea, bidaiak txartelak, etab.), edo faktura jaulki duen enpresaren zigilua duten fakturak, faktura ordaindu dela zehazten dutenak.
- Dirulaguntzaren erakunde publiko onuradunaren zigilu estanpatua duten P kontabilitate dokumentuak.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2021erako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalia atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

3. Langile profesionalen edo enpresako/elkarteko langileen kontratazioan aldaketarik badago eskabideari dagokionez, berdintasunaren arloan egindako lanak jasotzen dituen azalpen memoria, zein enpresa edo erakunderekin lan egin duen eta zein alditan egin duen adierazita.

#### **11. artikulua. Dirulaguntza aldatzea**

Diruz lagundu daitekeen aurrekontuari eta emandako dirulaguntzari hasieran onartu zaien muga oinarri hartuta, aldaketak onartu ahal izango dira diruz lagundu daitezkeen kontzeptu eta zenbatekoetan, nahiz eta diruz lagundu daitezkeen kontzeptuetakoren bat gauzatu gabe gelditu.

Justifikazio dokumentazioan jasotako desbideratze ez nabarmen horiek Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzuaren oniritzia izan beharko dute.

#### **12. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea**

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da. Lehenengo zatia, dirulaguntzaren ehuneko 80, dirulaguntza emateko datatik aurrera ordainduko da aurrerakin gisa, eta bigarren zatia, gainerako ehuneko 20a, dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu ondoren.


Salbuespenez, bigarren ordainketari dagokionez, eta aurkezturiko amaierako justifikazioan ez bada egiaztatu egindako gastuen ordainketa dirulaguntzaren ehuneko 20koa edo gutxiagokoa izan dela, justifikatu beharreko aurrerakin gisa egingo da ordainketa, eta ordainketa haien egiaztagiriak dirulaguntza jaso eta hilabeteko epean aurkeztu beharko dira.

**13. artikulua. Itzulketa**

Diruz lagundutako proiektua gauzatu ezin bada, inguruabar hori adierazi beharko da Arabako Foru Aldundiari emandako zenbatekoa itzultzeko, eta ezin izango da inolako kopururik erabili diruz lagundutako jardueraren edukiei zuzenean egotzi ezin zaien beste jarduera edo gastu baterako. Itzulketa hori dagokion zenbatekoa sartuta egingo da.

**14. artikulua. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	<b>I. ERANSKINA</b> <b>Proiektuaren inprimakia. Arabako kuadrillei eta udalei eta Trebiñuko Enklabeako udalei zuzendutako dirulaguntzak, emakume eta gizonen arteko berdintasuna erdiestera bideratutako programak edota jarduerak garatzeko 2021an</b> <b>ANEXO I</b> Formulario del proyecto de subvención dirigidas a Cuadrillas y Ayuntamientos de Álava y Enclave de Treviño para el desarrollo de programas y/o actividades destinadas a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres 2021	<b>9207</b>
	Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzua      Servicio de Igualdad, Cooperación e Interculturalidad	

**ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE <sup>(1)</sup>**

<b>Identifikazio agiria ■ Documento identificativo</b> <input type="checkbox"/> IKZ CIF <input type="checkbox"/> NAN DNI <input type="checkbox"/> AIZ NIE <input type="checkbox"/> Besteren bat Otro				<b>Identifikazio zk. ■ Nº identificativo</b> <input type="text"/>		<b>Sexua ■ Sexo</b> <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre		
<b>Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social</b> <input type="text"/>				<b>Lehen abizena ■ Primer apellido</b> <input type="text"/>		<b>Bigarren abizena ■ Segundo apellido</b> <input type="text"/>		
<b>Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)</b> <input type="text"/>				<b>Zk. ■ Núm.</b> <input type="text"/>	<b>Letra</b> <input type="text"/>	<b>Eskra. ■ Escal.</b> <input type="text"/>	<b>Solairua ■ Piso</b> <input type="text"/>	<b>Aldea ■ Mano</b> <input type="text"/>
<b>Herialdea ■ País</b> <input type="text"/>		<b>Probintzia ■ Provincia</b> <input type="text"/>		<b>Udalerría ■ Municipio</b> <input type="text"/>		<b>Herría ■ Localidad</b> <input type="text"/>		<b>P. K. ■ C. P.</b> <input type="text"/>
<b>Telefonoa ■ Teléfono</b> <input type="text"/>		<b>Mugikorra ■ Móvil</b> <input type="text"/>		<b>Posta elektronikoa ■ Correo electrónico</b> <input type="text"/>				

**JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOARI LOTUTAKO HARREMANETARAKO DATUAK**
**DATOS DE CONTACTO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN ELECTRÓNICA**

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, jakinarazpen elektronikoa Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa agertzeko sistemaren bidez egingo dira. Hartzailleek egoitza elektronikoa horretako "nire jakinarazpenak" atalean eskuratu ahal izango dituzte.

Jakinarazpen elektronikoa eskuratu ahal izango dituzte hartzailleek eta/edo, hala badagokio, haiek gaitutako pertsonak.

Erakunde eskatzaileak gailu elektronikoa bat eta/edo helbide elektronikoa bat identifikatu ahal izango du, abisuak bidaltzeko balioko duena, egoitza elektronikoa jakinarazpen bat eskuragarri jarri dela jakinaraziz. Hala ere, ohar hori egiten ez bada ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da:

Conforme a lo previsto en el artículo 43.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las notificaciones electrónicas se practicarán por el sistema de comparecencia en sede electrónica de la Diputación Foral de Álava. Las personas destinatarias podrán acceder a ellas en el apartado "Mis notificaciones" de dicha sede electrónica.

Podrán acceder a las notificaciones electrónicas las personas destinatarias de las mismas y/o, en su caso, las personas habilitadas por ellas.

La entidad solicitante podrá identificar un dispositivo electrónico y/o una dirección de correo electrónico que servirán para el envío de los avisos informándole de la puesta a disposición de una notificación en la sede electrónica. No obstante, la falta de práctica de este aviso no impedirá que la notificación sea considerada plenamente válida:

<b>Posta elektronikoa ■ Correo Electrónico</b> <input type="text"/>	<b>Telefono mugikor zenbakia ■ Número de teléfono móvil</b> <input type="text"/>
--	---

**LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL**

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

<b>Identifikazio agiria ■ Documento identificativo</b> <input type="checkbox"/> NAN DNI <input type="checkbox"/> AIZ NIE <input type="checkbox"/> Besteren bat Otro			<b>Identifikazio zk. ■ Nº identificativo</b> <input type="text"/>		<b>Sexua ■ Sexo</b> <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre	
<b>Izena ■ Nombre</b> <input type="text"/>			<b>Lehen abizena ■ Primer apellido</b> <input type="text"/>		<b>Bigarren abizena ■ Segundo apellido</b> <input type="text"/>	

Protokolo zk. ■ N° protocolo	Data ■ Fecha	Notario ■ Notario
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Telefona ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

**ESKAERAREN DATUAK ■ DATOS DE LA SOLICITUD**

<input type="checkbox"/>	Erakunde eskatzaileak soldatepeko langileak dauzka ■ La entidad solicitante tiene personal asalariado a su cargo	
Aurkeztutako aurrekontua (Aurrekontua/ Proiektuaren guztizko kostua) Presupuesto presentado (Presupuesto/Coste total del proyecto)	<input type="text"/>	€
Usteko sarrerak (Jarduerak sortutako sarrerak aurreikusiz gero baino ez bete) Ingresos previstos (Únicamente cumplimentar si se prevén ingresos generados por la actividad)	<input type="text"/>	€
Eskatutako zenbatekoa (AFari eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa) Importe solicitado (Importe de subvención solicitada a la DFA)	<input type="text"/>	€
Jardueraren / Programaren izena ■ Denominación de la actividad / Programa	Aurrekontua ■ Presupuesto	€
<input type="text"/>	<input type="text"/>	

**BANKU DATUAK ■ DATOS BANCARIOS <sup>(2)</sup>**

Bankua ■ Banco	<input type="text"/>
IBAN	SWIFT
<input type="text"/>	<input type="text"/>

**EGITASMOAREN TEKNIKARI ARDURADUNA (Egitasmoaren edukien argibideetarako harremana)  
PERSONA TÉCNICA RESPONSABLE DEL PROYECTO (A efectos de contacto para aclaración de contenidos del proyecto)**

Sexua ■ Sexo	Izena ■ Nombre	Lehen abizena ■ Primer apellido	Bigarren abizena ■ Segundo apellido
<input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Gizona Hombre	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Telefona ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	

HONEKIN BATERA AURKEZTUTAKO AGIRIAK Adierazi erantsitako dokumentazioa	DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA: Señalar la documentación que se adjunta
Eskabidearen inprimakia, I. eranskinaren arabera.	Formulario de solicitud, según Anexo I.
Proiektuaren inprimakia, II. eranskinaren arabera.	Formulario del proyecto, según Anexo II.
Egiaztagiri bat, idazkariak emana, erakundearen organo eskudunak gastua baimentzeko eta gastua finantzatzeko hartutako erabakiarena.	Certificación del Acuerdo del órgano competente de la entidad, expedida por la secretaria o secretario de la misma, autorizando la solicitud y financiación del gasto.
Udalerrian edo udalerrietan erroldatuta dauden pertsonen kopuruaren ziurtagiria, 2021eko urtarrilaren 1ekoa, sexuaren arabera berezituta.	En el caso de que la entidad solicitante sea un ayuntamiento, certificación del número de personas empadronadas en el municipio o municipios, con fecha 1 de enero de 2021, desagregado por sexo.
Hala badagokio, kontratazio gastuen aurreikuspenaren azalpen idazkia (eredua II. eranskinan).	Si procede, escrito explicativo de la previsión de gastos de contrataciones (según modelo incluido en Anexo II).
Enpresak, elkarteak edo profesionalak kontratatuz gero, azalpen memoria aurkeztu beharko dute, berdintasunaren inguruan egindako lanak jasoz eta zer enpresa edo erakunderekin lan egin duten eta hura egindako aldiak adieraziz	En el caso de contratación de empresas, asociaciones, personal profesional, memoria explicativa recogiendo los trabajos realizados en materia de igualdad con indicación de las empresas o entidades con las que ha trabajado y los periodos de realización.

Hala badagokio, ikastaroak, lantegiak edo antzekoak emango dituzten langileek egiaztatu egin beharko dute, gutxienez, 50 orduko prestakuntza edo urtebeteko esperientzia dutela emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan.	Si procede, en caso de personal encargado de la impartición de cursos, talleres o similares, acreditación de al menos 50 horas de formación en materia de igualdad y/o experiencia de un año en el ámbito de la igualdad, de las personas participantes en la actividad.	
Baldin eta beste dirulaguntza publiko eta/edo pribaturen eskatu bada, haien egiaztagiriak aurkeztu behar dira zenbat diru eskatu den adieraziz.	En el caso de haber solicitado otras subvenciones públicas y/o privadas, documentación acreditativa de las mismas con indicación del importe solicitado.	
Udal talde batek aurkeztutako eskabideen kasuan, elkartearen ordezkarri gisa diharduen pertsona edo erakundeari emandako ahalordea egiaztatzen duen dokumentazioa.	En caso de solicitudes presentadas por una agrupación de ayuntamientos, documentación acreditativa del poder conferido a la persona o entidad que actúe como representante de la agrupación.	

Adierazten dut eskaera honetan jasotako informazioa eta dokumentazioa guztia benetako dela.

Oharra (1)

